

96. zenb.

XXXVIII. URTEA
2020UZTAILA-ABENDUA

ISSN 2530-3287

**Garazi
Hormaetxe**

Derrigorrezko Bigarren
Hezkuntzako Irakaslea.

garazihormaetxe@gmail.com
[@GHormaetxe](https://www.instagram.com/GHormaetxe)

**Mikel
Iruskieta**

UPV/EHU. Hizkuntzaren eta
Literaturaren Didaktika
Saila.

HiTZ Basque Center for
Language Technologies
Ixa Taldea.

mikel.iruskieta@ehu.eus
[@iruskieta_m](https://www.instagram.com/iruskieta_m)

Ikerketak

Parekoen behaketaren bidez komunikazio-gaitasuna ebaluatzen: zer dute nahiago ikasleek, errubrika tradizionala ala bideo-behaketa

Lan honen helburua ikasmaila ezberdinetako ikasleek euren parekoen ahozko komunikazio-jarduna eta -estrategiak nola ebaluatzen dituzten aztertzea da. Horretarako, bi tresna ezberdin erabili ditugu: bata, bideo-etiketa bidezko behaketa (*Video Enhancing Observation*, VEO tresnarekin) eta, bestea, errubrika digitala. Aztertu ditugun ikasle-taldeak bi hauek dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle-taldea eta unibertsitateko ikasle-taldea. Ondoren, bi tresnen erabilerarekin lortu diren emaitzen inguruko hausnarketa egin da, horretarako ikasleei inkesta bidez galdetuta. Bukatzeko, ikasleen esperientzia oinarri hartuta, horien parte-hartzea deskribatu da eta, komunikazioko arloari erreparatuz gero, arreta handiena non jarri duten aipatu: errubrika bidez egindako ebaluazioan ala bideoan oinarritutakoan. Emaitzen arabera bai unibertsitateko ikasleek bai DBHko ikasleek uste dute egokiagoa dela bideo-etiketa bidezko behaketa, ahozko jarduna hobetzeko eta horri buruzko atzeraelikadura emateko

Gako-hitzak

bideo-etiketa bidezko behaketa, errubrika, komunikazio-estrategiak, parekoen behaketa, VEO

1. SARRERA

Denborak aurrera egin duen heinean, teknologiak ere eraldatzen joan dira, gero eta tresna konplexuagoak garatuz eta gero eta datu konplexuagoak modu errazean kudeatzeko aukerak sortuz. Digitalizaturik dagoen (edo nahiago bada bidean den) gizarte honetako beste esparru askotan izan du eragina eta, nola ez, hezkuntzan ere eragiten hasia da (Iruskieta et al., 2019b). Jakina denez, online irakaskuntzak presentzia handiagoa du egunetik egunera; ikasketa-arloa edozein delarik ere, online egiteko eskaintzak gero eta zabalagoak dira. Derrigorrezkoa ez den hezkuntzan, helduentzako alfabetatzean edo goi-mailako ikasketetan era ez presentzian ikasteko aukera andana aurki daiteke orain.

Gaur egungo hezkuntza-sistemak, etorkizunean euren gizartera eta ingurura ahalik eta ondoen egokitzeko gai eta kritikoak izango diren norbanakoak sortu nahi ditu; mundu profesionalean, sozialean eta garapen pertsonalean aurki ditzaketen egoera guztiei erositasunez aurre egiteko gai izango direnak. Jakina da IKTak ikasketa-prozesuetan giltzarri bihurtu direla aspaldi, eta hezkuntzan IKTekin lor daitezkeen ebidentziak eta datuak kudeatu behar direla, hobeto irakatsiko eta ikasiko bada.

Gure ustez ikasteko metodoen aldaketen eraginez, batik bat, digitalizazioak edo IKTak aldaketa-prozesu horietara egokitzeko beharra sortu da hezkuntza-arloan. Tresna ezberdinak ikasgeletan txertatzearekin, ikasleen gaitasunak lantzeko metodoak aldatu edo beharrizan ezberdinetara moldatu behar izan dira. Aipatu nahi dugu metodo bakoi-tzak bere tresnak garatu dituen arren, teknologiak ere izan dezakeela eragina pedagogian. Edonola ere, testu-liburuen rola osatzeaz gain, digitalizazioak hartzen duen espazioa gero eta handiagoa da.

Hizkuntzen irakaskuntzan teknologia erabiltzeari dagokionez, testu idatziak asko aztertu dira, batez ere arlo lexikoan edota esaldi mailan (Iruskietza et al. 2019a, Gabrielatos, 2005). Horretan oinarrituta, sistema konplexu asko garatu dira hezkuntza- eta hizkuntza-teknologiak baliatuz (Rudzewitz et al., 2019; Otegi et al., 2017, Arriola et al, 2020). Ahozkoari edo komunikazio-estrategiei dagokienez, teknologia egon badago ere (esaterako, ahotsa testu bihurtzeko Elhuyarren teknologia¹), hizkuntzen irakaskuntzan azterketa horiek konplexuagoak dira, batez ere euskaraz, teknologia horren garapen-, zabal-kunde- edo erabilgarritasun-maila apala dela eta. Bestalde, Batllek (2017) hezkuntza-teknologia erabili du irakasleen komunikazio-gaitasuna aztertzeko; zehazki, pareko profesionalen arteko behaketa egiteko VEO (*Video Enhancing Observation*) bideo-etiketa bidez.

Lan honen helburua da ikasmaita ezberdinetako pareko ez-profesionalek (ikasleek) euren arteko ahozko komunikazio-jarduna eta -estrategiak nola ebaluatzen diren aztertzea. Horretarako, bi tresna ezberdin erabili ditugu: bata, bideo-etiketa bidezko behaketa (VEO erabiliz) eta, bestea, errubrika digitala (ikus 2. eranskina). Horrela, ikaskideek euren arteko komunikazio-estrategiak nola ebaluatzen zituzten eta komunikazio-estrategien bidean ikasmaita batetik bestera zer aurrerapauso eman diren deskribatu ahal izan dugu.

Aurreko lerroetan aipatu bezala, pareko ez-profesionalek arteko ahozko jardunaren ebaluazioan oinarrituko da azterketa hau; izan ere, teknologiak eta pedagogiak aurrera egin ahala ebaluazioa egiteko sistemak ere aldatu egin dira. Muruak (2019) aipatzen duenez, ikuspegi teknologikoa berritzaile izateko, ikaslea ahalduz gain, protagonismoa eman behar zaio; hau da, parte-hartzailea izan behar du, eta horretarako biderik egokiena, irakasleak esatea baino gehiago, erakustea edo eginaraztea da. Gure lanean, hori egiten saiatu gara. Izan ere, ikusi dugu orain arte ikasgeletan errubrikak erabiltzean ikasleen ahozko-jarduna ebaluatzeko eta hainbat saiakera egin ondoren errubrika horiekin ikasleen balorazioak jaso bai, baina ikaskideei laguntzeko hausnarketarik ez dela egiten (Hormaetxe, 2019). Bestela esanda; akatsak ezagutu arren ondorengo praktike-tan errepikatu egiten zituzten eta ez zuten modurik beste ikaskideei erakusteko zein estrategia erabili akats horiek konpontzeko.

Ahozko jardunaren zati esanguratsuak erakusteko teknologia lagungarri izan daiteke eta ikaskideari atzeraelikadura zehatzagoa emateko aukera landu daiteke (eta horrek, era berean, norbere komunikazio-estrategiei buruzko hausnarketa ere bideratuko luke) hausnarketa erreflexiboa taldean lantzeko eta ikuspegi soziokonstruktiboari garrantzia emateko. Beraz, arrazoi hori izan da lan hau burutzeran eraman gaituena: ikasleak ahal-dundu komunikazio-estrategietan (euren gabeziak identifikatu eta besteei adierazi, komunikatzeko gaitasuna zein hizkuntzaren garapena hobetze aldera) eta hausnarketa

¹<https://aditu.eus>

hori sustatzeko baliabideak aztertu (errubrika eta bideo-etiketa bidezko behaketa, VEO sistema alegia, konparatuz), aldi berean DBHko eta unibertsitate mailako ikasleen artean ezberdintasunik dagoen ikusteko.

Halaber, lan honen bitartez zenbait hipotesi egiaztatu nahi izan dira eta, hipotesi horiek baloratzeko, ikasleei VEO eta errubrikaren bidez ebaluazioak egitean praktikaren inguruko inkesta egiteko eskatu zaie. Horretarako, inkesta horretan zenbait fenomeno behatu dira, honako hipotesi (H) hauei erantzuteko:

- H1: Ikasleek elkarri emango dioten atzeraelikadura hobeto baloratuko dute bideoaren gainean egiten badute. Horretarako, galdetu zaie zein tresnaren bidez ikasi duten gehiago (VEOrekin ala errubrikarekin) eta bi tresnen ahulguneak eta indarguneak identifikatzeko eskatu.
- H2: Zenbat eta ikasketa-maila altuagoa, orduan eta atzeraelikadura aberatsagoa; hau da, komunikazio-estrategiei dagokienez, etiketak gehiago eta esanguratsagoak izango dira.
- H3: Pareko behaketa IKTekin egitean, ikasleen parte-hartzea eta inplikazioa handituko da. Hori baloratzeko, atzeraelikadura aberatsena zein tresnaren bitartez eman duten galdetu zaie inkestan. Horrez gain, VEO erabilitako etiketak baliagarriak izan zaizkien ere galdetu zaie, hipotesia egiaztatzeke xedez.

Lan honetan ondorioztatu dugu aldea egon dela DBHko eta unibertsitateko ikasleen artean komunikazio-estrategiak baloratzean. Izan ere, unibertsitateko ikasleek komunikazio-gaitasunaren inguruko ezagutza zabalagoa dute (aurrerago etiketen erabilieran ikusi ahal izango den bezala) eta DBHkoek, aldiz, jarduera egin aurretik komunikazio-gaitasunak landu arren, ez dute tresna baliatu (etiketa bidez) estrategien berri emateko.

Bideo-etiketa bidezko behaketa metodoa saio bakarrean erabili da eta ikasleek erabili izan duten lehen aldia izan da. Hori horrela, pentsatzekoa da tresna eta metodoa erabiltzeko praktika-faltak bi taldeak mugatu dituela eta beharbada horietako bat gehiago. Izan ere, emaitzetan ikusi dugu, DBHko eta unibertsitateko ikasleak alderatuta, unibertsitateko praktika aurrera eramateko erraztasun handiagoa erakutsi dutela: alde bate-tik, irakurketa ozeneko estrategiak hobeto erabili dituztelako eta, beste aldetik, komunikazio-estrategiak material berarekin landu badira ere, bi irakasle ezberdinek landu dituztelako; beraz, horrek ere emaitzetan eragina izan zezakeela uste dugu (esaterako, VEO erabiltzean etiketa gehiago jarri dituztelako).

2. PAREKOEN BEHAKETA IKASLEEN ARTEAN

Parekoen behaketa prozesu bat da, non gure kasuan ikasleek beste ikasleen lanaren ebaluazioan parte hartzen duten. Ikertzaileen arabera, mota honetako ebaluazioaren bidez ikasleek lehenago ikasi duten horretan sakontzen dute; horrez gain, euren ikaskuntzan modu aktiboago eta zuzenagoan parte hartzera bultzatzen ditu (Falchikov, 2005; Sivan, 2010). Hori gutxi balitz bezala, koebaluazioa baliagarria gerta dakieke euren ikasketa antolatzeke; izan ere, HEOcean aipatzen den moduan "autoebaluazioa eta koebaluazioa dira ebaluazio motarik hezitzaileenak, ikasprozesuan ardatzen direlako, ikasten ikasteko gaitasuna areagotzen dutelako eta areagotu egiten duelako ikaslearen ahalmena ikasprozesuaren ardura hartzeko" (HABE, 2015, 67. or.). Horretaz gain, indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko edota beste arlo batzuetara transferitu ditzaketen trebetasunak garatzeko ere baliagarria da (Topping, 2003).

Arestian aipatu bezala, parekoen behaketa erabiliko dugu ikasleen komunikazio-gaitasunean eta euren ebaluazioan zein ezberdintasun diren aztertzeko hezkuntza-maila ezberdinetan. Horretarako, VEO tresna erabiliko dugu, tresna horrekin irakasleak, behin errubrikak eta etiketak prestatuta, ikasleen autonomia (ikasten ikastea) lantzeko, gaitasun estrategikoari buruz hausnartzeko eta ikasleek euren arteko ebaluazioa egiteke; ko-

munikazio-estrategien gainean, orokorrean, eta ahozko irakurketa ozen esanguratsua-
ren gainean, zehazki. Hau da, hizkuntza- eta ikasketa-maila bereko pareko ez-profesio-
nalen behaketa egingo da.

Aurrera egin aurretik, argitu dezagun HEOCari jarraituz (HABE, 2015, 56. or.) artikulua
honetan ere gaitasun estrategikoetan komunikazio-estrategien eta ikasestrategien artean
bereizten dugula. HEOCaren arabera, komunikazio-estrategiak dira “ahozkoaren
eta idatziaren ulermenerako estrategiak, ahozkoaren eta idatziaren adierazpenerako
estrategiak, eta fonema eta zeinuak ezagutu eta horiek ekoiztekoak”. Gainera, ahozkoari
buruz soilik ari gara.

Lan honetan proposaturiko jarduerak eskolan landutako konpetentzien gaineko hobe-
kuntzak ebaluatzeko aukera eskaintzen digute, baina emaitza hobeak lor daitezke eba-
luazio-prozesu horretan ikasleak tartean sartuz eta parte hartzeko aukera gehiago emanez.
Horrela, uler dezakete ebaluatzean kontuan hartuko diren irizpideekin eta ariketak
burutzearekin zer espero den.

Autoebaluazioa zein parekoen ebaluazioaren berri taldean eman daiteke ebidentziak
eta eztabaidak kontuan hartuz. Edozein kasutan, irakasleak behatutako errealtatea eta
ebaluazioa bat ez badatoz, irakaslearen eta parte hartu duten ikasleen arteko elkarriz-
ketak lagun dezake. Horrez gain, aurkeztutako estrategia honetan, aurretik eduki teo-
riko batzuk eta konpetentzia batzuk barneratzea ere lagungarri gerta daiteke; izan ere,
eduki teorikoak (irakurketa ozenaren kontzeptuak) ikasgaian zehar test erako proben
bidez ebalua daitezke, eta konpetentziak, aldiz, parekoen arteko ebaluazioaren bidez
(Navarro eta Gonzalez., 2010).

3. METODOLOGIA

Parekoen behaketaren inguruan VEOrekin egindako azterketa azalduko dugu jarraian.
Azterketa hau 2019ko abenduaren eta 2020ko urtarrilaren artean egin da; Euskal He-
rriko Unibertsitateko Bizkaiko Campusean bata, eta, bestea, Bilboko Bigarren Hezkun-
tzako ikastola batean. Parekoen behaketako jarduerak egiteko, ikasleek autoebaluazio-
rako bi modu izan dituzte: a) ohiko behaketa: errubrikak edo taulak erabiliz atzeraeli-
kadura emateko, baina pasarteak bideoan grabatu gabe, eta b) bideo-etiketa behaketa
aberastua, zeinetan VEO eta horrekin lortutako etiketak erabili ziren behaketa egin eta
atzeraelikadura emateko.

Komunikazio-estrategiak behatzeko, *Irakurketa ozen esanguratsua ebaluatzen* deituriko
jarduera egin da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleekin eta unibers-
tsitateko Hezkuntza Fakultateko ikasleekin egiteko berariaz diseinatu. Diseinu hori
Garcia-Arriolak eta Iruskietak (2016) argitaratutako lanaren moldaketa batean oina-
rritu da. Bigarren Hezkuntzan 29 ikasle osatutako taldea izanik eta unibertsitatean
80koa, 4 partaideko taldetan banatu ditugu ikasleak (talde batzuetan 5 kide izatea
onartu da). Irakurketa ozena binaka egin eta grabatu duten arren, lau taldeak disei-
natu dira ebaluazioari begira; hau da, ebaluazioari begira bikoteek elkar baloratu dute.
Helburu nagusia, ikasle denek ahozko irakurketa ozena egiteaz gain, VEO tresna edota
errubrika erabiltzea izan da; horregatik, batez ere DBHn, ikasleek bina balorazio egin
dituzte. Horretarako, laukoteen barruan txandakatu egin dira, bikoteak trukaturik rol ez-
berdineko laukote “berria” sortuz. 80 laguneko taldean, baliabide falta dela-eta, ez da
txandakatzerik egin eta ikasle bakoitzak rol bakarra izan du.

Grabazioak egiten hasi aurretik, garrantzitsua da ikasleekin ebaluatzeko tresnen ingu-
ruko lanketa bat egitea. Alde batetik, ikasleei VEO aplikazioaren erabilera zertan datzan
azaldu zaie, bideoa grabatzen hasteko pausoak zehaztuz eta etiketak non aurkituko di-
tuzten adieraziz (irakasle berak eman du azalpena talde guztietan). Beste aldetik, azpi-
etiketa bakoitza non dagoen ere jakin behar dute, ebaluazioa zuzen egiteko funtsezkoa
baita etiketak gertaerak jazo ahala ahalik eta arinen jartzea.


Errubrika irakaslearen eta ikasleen artean osatzea proposatu da (2. eranskina). Horrela ikasleek jakin dezakete adierazle bakoitzean zer elementu hartu behar diren kontuan eta elkarrizketa ebaluatzerakoan zehazki zer behatu behar den. Edonola ere, azterketa hau egiteko eta emaitza konparagarriak izateko, irakasleek talde guztietan etiketa-sistema bera erabili dela ziurtatu dute. Horrela, azterketa egiteko pauso hauek eman dira:

1. Ikasle guztiek ipuin bera ozenki irakurri eta antzeztu dute: Amestoyren eta Martinezen (1992) *Martintxo eta basajaunak*.
2. Testua aurkeztu ondoren, VEO sistema erakutsi eta etiketatze proba txiki bat egin dute aldez aurretik irakasleek prestatutako bideo batekin.
3. Horren ondoren, ipuina irakurri ahala komunikazio-estrategiak lantzeko, ipuina taldean prestatu dute eta irakurketa ozena markatzeko marka-sistema bat erabili dute (Aizpurua et al. 2018) eta ikasle bakoitzak bere irakurketa prestatu du, zenbait aldiz irakurriz eta markaturiko estrategiak baliatuz (ikus 1. taula).
4. Komunikazio-estrategiak finkatuta egon direnean, ikasle bakoitzak besteen aurrean ipuina irakurri du eta parekoek ebaluatu dute, bakoitzak bere sistema erabiliz: errubrika edo VEO sistema (ikus 2. taula) erabiliz. Grabatu ondoren, VEOren webgunera igo dira, bikoteek (behaztaileek eta behatuek) atzeraelikadura eman ahal izan dezaten.
5. Horren ondoren, ebaluatzaileek atzeraelikadura eman diete ipuina irakurri dutenei bi sistemak erabiliz; beraz, ebaluatuek bi modutara jaso dute atzeraelikadura: batetik, VEOrekin eta, bestetik, errubrikarekin.
6. Bukatzeko, bai irakurleek, bai ebaluatzaileek inkestak (ikus 1. eranskina) bete dituzte eta proposatutako galderei erantzun diete.

3.1. VEO-REN ERABILERA


Aipatu bezala, DBHko zein unibertsitateko ikasleekin tresnak erabili aurreko jarduerak egin dira, ikasleei aurre-prestakuntza bat emateko asmoz eta ebaluazioan arreta non jarri behar zuten jakin zezaten. Ikasleek eginiko jardueretan, komunikazio-estrategietan zentratu gara eta beranduago erabili beharko zuten etiketa-sistema aldez aurretik landu da eskola-saioretan. Irakurketa ozena ebaluatzeko estrategiak edo kontzeptu teoriko zehatzak gelan landu dira eta ipuin edo narrazio laburraren bitartez praktikan jarri ahal izan dute arestian ikasitakoa.

1. irudia. VEOrekin saioa grabatzean ikusten dena: etiketa sistema.



Arestian adierazi den legez, VEOk aukera ematen du klaseak edo ahozko jardunak bideoan grabatzeko, eta grabatzen ari garela aldeztu aurretik erabiltzaileak hautaturiko etiketa batzuk eransteko, iPada erabiliz (ikus 1. irudia). Etiketak (aurretiaz ikasleekin batera diseinatu eta ezarri direnak) pantailaren alboetan daude eta ikasleak zuzenean atzamarrak ukituta bideoan etiketak jartzen dira, gero kontsultatu ahal izateko eta etiketa horiekin parekoei atzeraelikadura emateko edota komunikazio-estrategiei buruz hausnartzeko (ikus 2. irudia).

2. irudia. VEOrekin saioa grabatu ondoren atzeraelikadura emateko ikusten dena: etiketak eskuinean.




Ondorioz, behatutako klaseko funtsezko momentu eta elementuak markatzeko etiketa-sistema bat erabiltzea da tresnaren oinarria. Ezaugarriak bideoan markatuta geratzen dira, erabiltzaileak gero zuzenean joan ahal izan daitezkeen iruzkindu nahi diren funtsezko momentuetara (ikus 2. irudian "EBAZ" eta "erritmoa" etiketak, besteak beste). Era berean, erabiltzaileak jarritako etiketei buruzko estatistikak ere ematen ditu programak, eta behatzaileak bideoan gehitzen duen etiketa bakoitzari lotutako oharrak eta iruzkinak eransteko aukera ere ematen du.

VEOren elementu garrantzitsuena eskaintzen duen etiketa-sistema da: ebaluatu edo behatu nahi diren elementuen arabera erabiltzaileak etiketak sortu ditu, zortzi gehienez ere, eta etiketa bakoitzaren barruan nahi beste azpietiketa (ikus 3. irudia). Azpietiketak sortzean bakoitza positibo edo negatibo moduan markatu daiteke edo galdera-markaz adierazi momentu horretan balorazioa zehaztu nahi ez bada.

Grabazioa bukatzean, informazioa lainora doa eta behaketan parte hartzen duen orok ikus dezake, bai grabatzean etiketatuta diren fenomenoaren estatistikak, bai behatzaileak berak grabaketa egin ostean beste aldi batean jarritako etiketak edo hartutako oharrak.

Horrez gain, lan honetan erabili ez badugu ere, VEOk grabaketak partekatzeko aukera eskaintzen du parte-hartzaileek bideoak ikusi eta iruzkinak egin ditzaten; modu horretan, komunitate antzeko bat sor daiteke elkarlanean praktika erreflektiboa egiteko (ikus Batlle 2017 informazio gehiagorako).

3. irudia. Narratzailearen posizioaren azpikontzeptuak. Irudian etiketa bakoitzaren barruan aurki daitezkeen azpiketaketak ageri dira. "+" eta "-" ikurren bidez, modu positiboan edo negatiboan baloratu daitezkeenak.



3.2. TESTUAK AHOZ ESAN AURRETIK KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK MARKATZEKO ERA

Testua komunikazio-estrategiekin markatzeko erabili dugun markaketa-orria Aizpurua et al.ek (2019) proposaturikoa da.

1. taula. Testuan komunikazio estrategiak markatzeko sistema (Aizpurua et al., 2019, 41.orr).

Baliabidea	Ikurra	Esanahia
Bolumena	A (letra larria)	Bolumen altua
	a (letra xehea)	Bolumen baxua
Azentua	á (tiletta)	Silaba horretan azentua
Etenak	/	Eten laburra
	//	Eten luzea
Abiadura	a-a	Abiadura motela
	a_a	Abiadura azkarra
Intonazioa	↗	Intonazioa gora
	↘	Intonazioa behera
	↔	Intonazioa gora-behera-gora
Lapsusak	Ez dauka ikur finkorik. Adierazi nahi den moduan idatziko da.	

3.3. BIDEO-ETIKETA BIDEZKO ATZERAELIKADURA EMATEKO OSAGIAIK

2. taulan jaso dira VEOn komunikazio-estrategiak ebaluatzeko eta aztertzeko erabili diren etiketak.

2. taula. VEO sisteman komunikazio-estrategia ebaluatzeko etiketa-sistema.

Estrategien etiketak	Balioak	Azalpena	Simplea ala konplexua
Pausak	POS	Geldialdi estrategikoak egiten ditu / Mezua nabarmentzen du	Konplexua
	NEG	Pausak sintagma tartean, Gramatikaz pentsatu bitartean egiten ditu.	Simplea
Ahotsa inpostatzea	POS	Urrun	Konplexua
	NEG	Hurbil	Konplexua
Aurkezteko keinuak	POS	Keinua bat dator dioenarekin	Konplexua
	NEG	Keinua ez dator bat dioenarekin	Simplea
Narratz. posizioa	POS	Gorputzaren kontrol osoa	Konplexua
	NEG	Urduritasuna erakusten du	Simplea
Lapsusak	POS	Nahita egiten ditu urduritasuna edo beldurra komunikatzeko	Konplexua
	NEG	Nahi gabe egin ditu.	Simplea
Ahoskera	POS	Soinuak egoki ahoskatzen ditu (EBAZ)	Simplea
	NEG	EBAZ oker egiten du	Simplea
Irakurketa ozena	POS	Intonazioa, bolumena edota erritmoa egokiak dira	Konplexua
	NEG	Intonazioa, bolumena edota erritmoa ez dira egokiak	Simplea

Etiketen konplexutasunari dagokionez, 2. taulan oinarritzko komunikazioaren atzeraelikaduratzat honako hauek hartu dira: i) Simplea: araua edota araua ezin betetzea, akats gisa edo atzeraelikadura sinpletzat hartu da (pausak NEG, narratzailearen posizioa NEG, lapsusak NEG, ahoskera NEG eta irakurketa ozena NEG). ii) Konplexuak: bestelako komunikazio-estrategiak eta ondo egindako beste etiketa guztiak konplexutzat hartu dira; izan ere, ikasleek horiek erabiltzen hasten direnean, komunikazio-gaitasunean emandako aurrerapausoen erakusgarri dira.

3.4. GALDETEGIAK

Laneko hipotesiak erantzuteko, ikasleek *Google Forms* erabilia betetako asebetetze-inkestaren bidez (ikus 1. eranskina), hainbat adierazle hartu nahi izan dira kontuan emaitzak ateratzeko. Inkestaren barruan, galdera batzuk bai/ez erakoak izan dira, edota aukera bakarrekoak emaitza kuantitatiboa ateratzeko asmoz. Beste batzuk, ordea, aukera anitzekoak izan dira eta, azkenik, beste galdera batzuetan ikasleek euren erantzunak garatu ahal izateko tartea izan dute.

4. EMAITZAK

VEO erabiltzean eta ikaskideei balorazioa egitean etiketak baliagarriak izan zaizkien galdetu zaie ikasleei eta % 100ek baiezkoa erantzun dute. Ikasleei oso baliagarriak iruditzen zaizkie etiketak; batez ere akatsak zehaztasunez jar daitezkeelako eta kideari ebaluazioa egitean askoz errazago erakusten zaiolako noiz eta zertan egin duen kale. Horrez gain, erabilgarria iruditu zaie zuzenean ikus daitezkeelako nola erabiltzen dituen irakurleak komunikazio-estrategiak. Bestalde, bideoa izanik ere, erabilera erraza du eta erakusgarria da. Gainera, etiketetan klik eginez oso erraz antola daiteke atzeraelikadura, etiketaturiko irizpide guztiak ikusgai daudelako.

H1 hipotesiari dagokionez, ikasleei euren esperientziaren arabera zein tresnarekin ikasi duten gehiago galdetu zaie eta emaitzetan ikus daiteke ikasleen % 96,7k uste duela VE-Orekin errubrikarekin baino gehiago ikasi dutela. Hala ere, aipatu behar da ikasleen % 3,3k errubrikaren alde egin dutela.

Idatzizko erantzunetan ere, gehiengoak adostasuna erakutsi du erantzuna arrazoituz. Aurreko lerroetan aipatu den bezala, grabaketek atzerakaelikadura-lana asko errazten dutela diote, akatsak kuantitatiboki baloratu eta komunikatu daitezkeelako eta ikasleen arteko elkarrizketaren edozein momentutan erakutsi. Beraz, ikaskideari akatsak zein unetan egin dituen erakusteko oso baliagarria dela diote, akatsak memorizatu gabe eta ebidentzien gainean hitz egiteko. Horrela, grabaketa bukatzean egindako akatsak zerrrenda batean erregistratzen dira eta horiek banaka entzun eta ikaskideari horien gaineko oharrak edo zuzenketak egin dizkiote; nolabait akats horiei buruzko hausnarketa taldean egin eta estrategiak garatzeko bidean jarri dituzte, etorkizunean ez errepikatzeke.


Horiek horrela, H1 hipotesia ("ikasleek elkarri emango dioten atzerakaelikadura hobeto baloratuko dute bideoaren gainean egiten bada") bete dela esan dezakegu.

Inkestan, azkenik, ikasleei komunikazio-gaitasuna garatzeko VEO eta errubrika 1etik 5era baloratzeko eskatu zitzaie (1 gutxieneko balioa eta 5 gehieneko balioa izanik), tresna bakoitza zenbateraino den erabilgarria jakiteko asmoz. Errubrikaren kasuan, ikasleen % 60k 3 puntuko balioa eman zioten eta % 23,3k 4 puntuko balioa (ikus 4. irudia).

4. irudia. Ikasleek egindako asebetetze-inkesta: errubrika 1etik 5era arteko puntuazioa.

Aipatu zenbateraino den erabilgarria Errubrika (1 gutxiengo balioa 5 gehiengo balioa) komunikazio-gaitasuna garatzeko.

30 erantzun




Bestalde, ikasleen % 66,7k 4 puntuko balioa eman zioten VEO tresnari eta % 36,7k baliarik handiena.

5. irudia. Ikasleek egindako asebetetze-inkesta: VEOri 1etik 5era arteko puntuazioa.

Aipatu zenbateraino den erabilgarria VEO (1 gutxiengo balioa 5 gehiengo balioa) komunikazio-gaitasuna garatzeko.

30 erantzun



Bestetik, ikasleei errubrikaren eta VEOren indarguneak eta ahulguneak aipatzeko eskatu zitzairen. VEO erabilera errazeko tresna dela uste dute eta etiketen laguntzari esker balorazioak oso zehatzak direla diote. Akatsak momentu zehatz batean identifikatu ahal izatea eta akats horiek momentuan edo gerora justifikatu ahal izatea ikasteko oso erabilgarria dela uste dute; etiketekin lortzen dena ezin daitekeelako errubrikan modu berean adierazi. Aipatu nahi dugu lan honetan ere Batllek (2017) irakasleen arteko (beha-tzaile profesionalak) behaketa atera zituen ondorioak atera dituztela ikasleek (beha-tzaile ez-profesionalak). Horrez gain, VEO erabiltzeko orduan, etiketak azkar jartzen jakitea ezinbestekoa dela diote, bestela akatsa markatzen den momentuan hizlariak aurrera egiten du eta ebaluatzaileak adierazitakoaren eta akatsaren artean segundo batzuen arteko aldea egon daiteke. Horrek urduritzen dituela aitortu dute batzuek.


Errubrikaren alde positiboen eta negatiboen inguruan ere iruzkinak egiteko eskatu zitzairen eta errubrika azkarrago osatzen dela diote, VEOk lan, "inplikazio" eta arreta handiagoa eskatzen duelako. Alabaina, ikasleen iritziz, errubrikak balorazio orokor bat emateko balio du soilik, errubrika alde aurretik ondo irakurri eta ulertu beharra dagoela diote eta ez duela balio akats zehatzak markatzeko eta justifikatzeko, ez duelako horretarako sistemarik eskaintzen. Beraz, errubrika erabiliz ebaluazio edo atzeraelikatadura on bat egitea zailagoa delakoan daude, aurreko lerroetan aipatu bezala ebaluazio oso orokorra eta mugatuegia delako.

Bigarren hipotesiari erantzuteko asmoz, unibertsitateko eta DBHko ikasleen artean VEO sistemarekin erabili dituzten komunikazio-estrategien etiketen erabileran, honako berdintasunak eta ezberdintasunak ikusi ditugu:

- **Berdintasunak.** Ahoskerari eta lapsusei eman diete ikasleek garrantzi gehien, guk komunikazio-estrategien garapenean eta horiei atzeraelikatadura ematean sinpletzat edo hasierako mailako baliabidetzat hartutakoak. Ahoskera izan da etiketa positibo gehien jaso duena; beraz, ondoen egin dutena eta ebaluatzean atentzio gehien jaso duena. Horrek esan nahi du EBAZ barneratzen eta erabiltzen hasi direla; hau da, komunikazio-gaitasunean balio linguistikoari dagokiona: oinarritzkoa den araua betetzea. Bestalde, lapsusak dira etiketatzeko akats errazenak atzeraelikatadurari dagokionez eta parekoak ikusiaz batera erraz onar ditzakeenak, arazo handirik gabe. Esan genezake, etiketa horiek komunikazioan garrantzitsuak badira ere, balio linguistikokoak direla eta ez direla komunikazio-estrategien esparruan sartzen; beraz, oinarritzko maila adierazten dute. Horrela, beraz, unibertsitatean erabili dira etiketa konplexuagoak (unibertsitatean % 65 etiketa konplexu: 399 etiketatik 262 konplexu eta DBHn % 44 etiketa konplexu: 256 etiketatik 113 konplexu (ikus 6. irudia)).

- Ezberdintasunak. Bestela komunikazio-estrategietan eta balio pragmatikoa adierazteko etiketetan ikus daiteke unibertsitateko ikasleek strategiak modu positiboan sarriago erabiltzen dituztela (% 63 etiketa positibo unibertsitatean: 399 etiketatik 255 positibo eta % 42 DBHn: 256 etiketatik 108 positibo) eta, beraz, DBHn negatiboak direla gehiago etiketatu direnak. Esan behar da, honek zuzenean ez duela erakusten ikasleen praktika eta komunikazio-estrategien garapena; izan ere, gerta zitekeelako ikasle batzuk atzeraelikadura emateko etiketa negatiboak gehiago nabarmentzea eta ez dago modurik horren eragina zenbaterainokoa izan daitekeen jakiteko parekoek egindakotik (ikus 6. irudia).

6. irudia. DBHko eta unibertsitateko talde bakoitzaren etiketa-kopurua.




Horrela, beraz, H2 hipotesian esan dezakegu unibertsitateko ikasleek komunikazio-estrategietan oinarritzen diren etiketa aberatsagoak erabili dituztela atzeraelikadura ematerakoan.

Bestalde, ikasleen iritzari begiratu gero, arestian aipatu bezala, jarduera egin ondoren ikasleei asebetetze-inkesta betetzeko eskatu zaie bi tresnak baloratze aldera. H3 hipotesiari erantzuteko hainbat galdera egin ditugu. Lehen galderan ikasleei atzeraelikadura aberatsena zein tresnarekin jaso duten galdetu zaie eta % 90ek VEO aukeratu dute; beste % 10ek, aldiz, errubrika nahiago dutela adierazi dute.

Galdera horrek, hortaz, ikasleen arrazoiak ezagutzeko eta iritzia garatzeko aukera eman digu. Ikasleek adierazitakoaren arabera, VEO bidez zuzenketak egitea, gero atzeraelikadura ematekotan, errubrikarekin baino askoz errazagoa da; izan ere, VEOk eskaintzen dituen etiketen bidez errazagoa egiten zaie akatsak identifikatzea eta akats horiek zehaztasunez erregistratzea; "argiagoa" dela alegia. Unean uneko errakuntzak markatu ahal izatea eta azpiketaren bidez aukera anitz izatea VEOren abantaila nagusietariko bat dela azaldu dute eta, jakina, bideo grabazioak gordeta gelditzen direnez, grabaketan akatsak banaka aztertzeke eta horien gainean oharrak egiteko ematen duen erraztasuna oso aberasgarria dela azpimarratu dute. Izan ere, errubrikarekin balorazio oso orokorra ematen dela uste dute, ezin direlako akats zehatzak erakutsi eta ahozko jarduna bukatu arte kalifikazio orokorrak jarri. Oro har, norberaren akatsak zehazki identifikatzea eta horiek berrikustea VEOren indargune nagusietako bat dela adierazi dute, Batllek (2017) ateratako ondorioekin bat eginez.

Horiek horrela, ikasleen pareko behaketa VEOrekin egitean, ikasleen parte-hartzea eta inplikazioa handitu dela esan dezakegu (H3 hipotesia).

7. irudia. DBHko eta unibertsitateko ikasleen etiketa-kopurua VEOn.



5. ONDORIOAK

Guk dakigula, aitzindari da lan hau. Izan ere, honakoak uztartu ditu: komunikazio-gaitasuna euskaraz, atzeraelikadura, pareko ez-profesionalen arteko behaketa eta bideo-etiketen erabilera. VEO sistema, orokorrean, profesionalak erabiltzen dute (Battle, 2017) eta gure kasuan erabiltzaile ez-profesionalak izan dira, hau da, ikasleek baliatzea lortu dugu parekoen ebaluazioa egiteko.

Azterketa honetan ikasleen gehiengoak VEO sistema hobetsi du; izan ere, ikasleen ustean, errubrikak ariketaren balorazio orokor bat ematen dien bitartean, VEOk etiketak (akatsak eta komunikazio-estrategiak) momentu zehatzetan eta bizkortasunez jartzeko aukera ematen die. Gainera, ikasleek azpimarratu dute, ariketa egin ostean ikaskideei balorazioa egiteko orduan, etiketen erregistroak asko erraztu diela lana, batez ere kideei akatsak zehaztasunez erakusteko.

Horrez gain, unibertsitateko ikasleek DBHkoek baino etiketa gehiago erabili dituzte eta atzeraelikadura aberatsagoa eman dute VEO sistemarekin; beharbada, komunikazio-gaitasunaren gaineko ezagutzan aurrerapena dagoela maila batetik bestera erakusten du horrek.

Lan honen mugarik handiena bideo-etiketa bidezko behaketa saio bakarrean erabili izana dela uste dugu. Horrek etiketa-kopuruan eta atzeraelikaduraren kalitatean nabarmen eragin duelakoan gaude. Horregatik, etorkizunean asmoa dugu behar diren baliabideak eskuratu eta esku-hartzearen emaitzak tarte ezberdinetan biltzeko.

Bukatzeko, nabarmendu nahi dugu maila ezberdinetan egin izanak eta esku-hartzeak irakasle ezberdinek egin izanak ere eragin zezaketela emaitza hauetan. Horregatik, zailtasunak zailtasun, interesgarria litzateke prestakuntza-saioak irakasle berak ematea eragin hori ahalik eta txikiena izan dadin.

Bibliografia

- Aizpurua, L. Beaskoetxea, U. Karrillo, J., eta Iruskietza, M. (2018). Ipuinetako pertsonaiak ezaugarritzeko komunikazio estrategiak: irakaslearentzako gida xume ulerterraza. *Uztaro giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 107, 37-51. DOI: 10.26876/uztaro.107.2018.3
- Amestoy, K., eta Martinez, B. (1992). *Behin bazen*. Elkar.
- Arriola, J.M, Goikoetxea, J., eta Iruskietza, M. (2020). Hizkuntza-teknologiak hizkuntzen ikas-irakaskuntzan: zenbat aukera, hainbat erroka. *eHizpide*, 95. www.ikasbil.eus/mod/habecms/view.php/irakasbil/argitalpenak/hizkuntza-teknologiak_hizkuntzen_ikas-irakaskuntzan
- Battle, J. (2017). Parekoeen behaketa irakasleen garapen profesionalen: Video Enhanced Observation (VEO) sistemarekin egindako esperientzia. *eHizpide*, 90. www.ikasbil.eus/mod/habecms/view.php/irakasbil/argitalpenak/parekoeen_behaketa_irakasleen_garapen_profesionalen
- Falchikov, N. (2005). *Improving Assessment Through Student Involvement. Practical solutions for aiding learning in higher and further education*. Routledge Falmer.
- Gabrielatos, C. (2005). Corpora and Language Teaching: Just a fling or wedding bells? *The Electronic Journal for English as a Second Language (TESL-EJ)*, 8 (4). <https://files.eric.ed.gov/fulltext/EJ1068106.pdf>
- HABE, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea. (2015). *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC)*. https://www.habe.euskadi.eus/contenidos/informacion/curriculuma/eu_9716/adjuntos/HEOC-digitala.pdf
- Hormaetxe, G. (2019). *Parekoeen behaketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: VEO sistema eta errubrika konparatuz*. [Master-tesia]. UPV/EHU eta UEU. <http://hdl.handle.net/10810/34703>
- Iruskietza, M., Otegi, A., Uria, L., Diaz de Ilarraza, A., eta Artolazabal, A. (2019). Zer i(r)akas dezakegu geure corpusekin "jolastuz"? In A. Etxebarria, A. Iglesias, H. Legarra eta A. Romero, *Traineru bete lagun: Iñaki Gaminde omenduz*, (35-66 or.). UPV/EHU.
- Murua, I. (2019). Irakaslea berrikuntzaren aurrean: garapen profesionala eta ahalduztea. In M. Iruskietza, M. Maritxalar, A. Arroyo eta A. Camacho (ed.), *IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan* (25-32 or.). UEU eta UPV/EHU.
- Navarro, I., eta González, C. (2010). La autoevaluación y la evaluación entre iguales como estrategia para el desarrollo de competencias profesionales. Una experiencia docente en el grado de maestro. *Revista de Docencia Universitaria*, 8 (1), 187-200. <https://doi.org/10.4995/redu.2010.6225>
- Otegi, A., Imaz, O., Díaz de Ilarraza, A., Iruskietza, M., eta Uria, L. (2017). ANALHITZA: a tool to extract linguistic information from large corpora in Humanities research. *Procesamiento del Lenguaje Natural*, 58, 77-84. <http://journal.sepln.org/sepln/ojs/ojs/index.php/pln/article/view/5415>
- Rudzewitz, B., Ziai, R., Nuxoll, F., De Kuthy, K., eta Meurers, D. (2019). Enhancing a Web-based Language Tutoring System with Learning Analytics. *Joint Proceedings of the Workshops of the 12th International Conference on Educational Data Mining*, Volume 2592, 1-7. http://griemetic.ca/wp-content/uploads/2019/07/LABBEC2019_paper_1.pdf
- Sivan, A. (2010). The implementation of peer assessment: an action research approach. *Assessment in Education*, 7 (2), 193-213. <https://doi.org/10.1080/713613328>
- Topping, K. (1998). Peer Assessment between Students in Colleges and Universities. *Review of Educational Research*, 68 (3), 249-276. DOI: 10.2307/1170598

1. eranskina. Ikasleen iritzia jasotzeko inkesta (<https://labur.eus/HwCla>)

<p>Komunikazio-gaitasuna ebaluatzeko tresnak: VEO vs Errubrika</p> <p>Berdinen arteko ebaluazioaz gogoeta egiten</p> <p>* Derrigorrezkoa</p> <p>Zure izen-abizenak jarri *</p> <p>Zure erantzuna _____</p> <p>Aipatu nork egin dizun errubrikarekin ebaluazioa: *</p> <p>Zure erantzuna _____</p> <p>Aipatu nork egin dizun VEOrekin ebaluazioa *</p> <p>Zure erantzuna _____</p>	<p>Zein feedback izan zaizu baliagarriena? *</p> <p><input type="radio"/> VEO</p> <p><input type="radio"/> Errubrika</p> <p>Zergatik? *</p> <p>Zure erantzuna _____</p> <p>Baliagarriak egin zaizkizu etiketak? *</p> <p><input type="radio"/> Bai</p> <p><input type="radio"/> Ez</p> <p>Zergatik? *</p> <p>Zure erantzuna _____</p> <p>Nola uste dozu ikasi duzula gehiago, zein sistemarekin? *</p> <p><input type="radio"/> VEO</p> <p><input type="radio"/> Errubrika</p> <p>Zergatik? *</p> <p>Zure erantzuna _____</p>	<p>Aipatu zenbateraino den erabilgarria Errubrika (1 gutxiengo balioa 5 gehiengo balioa) komunikazio-gaitasuna garatzeko. *</p> <p><input type="checkbox"/> 1</p> <p><input type="checkbox"/> 2</p> <p><input type="checkbox"/> 3</p> <p><input type="checkbox"/> 4</p> <p><input type="checkbox"/> 5</p> <p>Zeintzuk izan daitezke VEOren alde onak eta txarrak? *</p> <p>Zure erantzuna _____</p> <p>Eta errubrikaren alde onak eta txarrak? *</p> <p>Zure erantzuna _____</p> <p>Berdinen arteko ebaluazioa komunikazio-gaitasunean hobetzeko VEO aukera bat izan daitekeela uste duzu? *</p> <p><input type="checkbox"/> BAI</p> <p><input type="checkbox"/> EZ</p> <p>Zerbait gehitu nahi duzu? Iruzkinen bat?</p> <p>Zure erantzuna _____</p> <p>Bidali</p>
---	---	--

2. eranskina. Parekoen ebaluazioa egiteko errubrika (<https://labur.eus/v9vZc>)

Irakurketa ozena ebaluatzeko errubrika

Komunikazio-gaitasunaren berdinaren arteko ebaluazioa. Ipuina: Martintxo eta basajaunak

* Derrigorrezkoa

Idatzi ebaluatuko duzunaren izen-abizenak *

Zure erantzuna

Idatzi zure izen-abizenak *

Zure erantzuna

1. Narratzailearen posizioa

Zuzena: gorputzaren kontrol osoa adierazten du.

Okerra: Urduritasuna agertzen du

2. Esandakoa aurkezteko keinuak

Zuzena: Keinuak bat datoz dioenarekin.

Okerra: Keinuak ez datoz bat dioenarekin.

3. Ahotsa inpostatzea

Zuzena: urrun

Okerra: hurbil

4. Pausak *

Zuzena: Mezua nabarmentzen du eta geldialdi estrategikoak egiten ditu.

Okerra: Geldialdiak sintagma artean egiten ditu /gramatikan pentsatzen ari da...

5. Bolumena

Zuzena: Hitzaren modu esanguratsuan markatzen du

Okerra: Ez da ondo entzuten

6. Intonazioa

Zuzena: Gora-beherak ondo darabiliz

Okerra: Gora bukatzen ditu esaldiak

7. Erritmoa

Zuzena: Kontakizunaren arabera moldatzen du

Okerra: Astiroegi / Azkarregi irakurtzen du

8. Ahoskera

Zuzena: soinuak egoki aldatzen ditu, adb: eztu>>ez du*

Okerra: EBAZ oker egiten du

9. Lapsusak

Okerra: lapsusak egiten ditu

Ebaluazio orokorra

Zure erantzuna

Bidali